



Gipuzkoako Historikoaren 2023. urterako Aurrekontu Orokorrak onesten dituen Foru Arau proiektua Lurralde

ZIOEN AZALPENA

Munduak aldaketa garai bat bizi du, asaldura geopolitikoen eta ziurgabetasun ekonomiko eta sozialen eraginez. 2022an, gerra Europaren bihotzera itzuli zen Errusiak Ukraina inbaditu zuenean, eta hari batu zaizkio pandemiaren ondorio sozioekonomiko luzeak, prezioen gorakada edo munduko krisi energetikoa.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erronka nagusia da, oraindik ere, ahulenak babestea egungo munduaren erronken aurrean. Izen ere, 2022an zehar, Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako erakundeekin batera, irmotasunez jardun du prezioek gora egitea bezalako gaiei aurre egiteko, batez ere horretara bideratutako neurri fiskalen bidez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak agintaldi honetarako erronka estrategiko gisa mantentzen du desberdintasun ekonomiko, sozial, linguistiko edo bestelakoak aurkako borroka. Zehazki, Gipuzkoaren asmoa da desberdintasun tasa txikienak dituzten Europako lurraldeen artean egotea. Horrek garrantzi berezia hartzen du mehatxu gero eta handiagoen eta ziurgabetasunen aldi honetan, non foru erakundearen araua inor atzean ez uztea izan behar baita.

Arlo sozialarekin batera, bistakoa da ekonomiari bultzada emateak izan behar duela Aldundiaren beste jarduketa ardatz nagusi bat datozen hilabeteetan. Izen ere, foru erakundearen iritzia da garapen soziala eta garapen ekonomikoa txanpon bereko bi aldeak direla, eta bata ez dela ulertzen bestea gabe. Ekonomia indartsu eta lehiakor bat ongizate maila altuak dituen gizarte kohesionatu baten oinarria da. Horregatik, egungo egoera ekonomikoaren aurrean, Aldundiak arlo ekonomikoan jardutea ere jotzen du lehentasunezkotzat, azken urteotan egin duen bezala..

Proyecto de Norma Foral por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2023

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El mundo transita por una época de cambios, marcado por las turbulencias geopolíticas y las incertidumbres económicas y sociales. En 2022, la guerra volvió al corazón de Europa con la invasión de Ucrania por parte de Rusia, lo que se ha unido a las todavía alargadas consecuencias socioeconómicas de la pandemia, a la escalada de los precios o a la crisis energética mundial.

En este contexto, el principal reto de la Diputación Foral de Gipuzkoa sigue siendo proteger a las y los más vulnerables frente a los desafíos del mundo actual. De hecho, a lo largo de 2022 la institución foral, en alianza con el resto de instituciones de la Comunidad Autónoma Vasca, ha ido actuando de forma decidida para atajar cuestiones como la escalada de los precios, sobre todo a través de medidas fiscales destinadas a tal fin.

La Diputación Foral de Gipuzkoa mantiene como reto estratégico para la presente legislatura la lucha contra las desigualdades, sean estas económicas, sociales, lingüísticas o de cualquier otro tipo. En concreto, Gipuzkoa aspira a situarse entre los territorios europeos con menores tasas de desigualdad. Esto cobra especial relevancia en este periodo de amenazas crecientes e incertidumbres, en el que la máxima de la institución foral ha de ser la de no dejar a nadie atrás.

Junto al ámbito social, resulta evidente que el impulso a la economía tiene que ser el otro gran eje de actuación para la Diputación en los próximos meses. De hecho, la institución foral defiende la máxima de que desarrollo social y desarrollo económico son dos caras de la misma moneda, ya que el uno no se entiende sin el otro. Una economía fuerte y competitiva es la base de una sociedad cohesionada y con altos niveles de bienestar. Por eso, ante la coyuntura económica actual, la Diputación también marca como prioritaria la actuación en el ámbito económico, como ya viene haciendo durante los últimos años.



Alde horretatik, 2023an garrantzi berezia hartzen dute Etorkizuna Eraikiz programaren barruan abian jarritako proiektu estrategikoek, zeinak etorkizuneko Gipuzkoako ekonomiaren zutabeak izango baitira. Hala, Adinberri, Naturklima edo Mubil bezalako proiektuak azpiegitura nagusiak sendotzeko eta abian jartzeko fase erabakigarri batean sartuko dira ekitaldi horretan, eta horrek modu erabakigarrian lagunduko du lurraldoko ekonomia indartu dadin.

Horrekin batera, Gipuzkoak garapen ekonomiko eta sozial jasangarriaren aldeko apustua egiten jarraituko du, betiere ingurumena errespetatz eta gero eta energia garbiagoetan oinarrituz. Mundua larrialdi klimatikoan dagoen honetan, lurraldeak gai horretan erreferentzialtasuna irabaztea ere lortu nahi du Aldundiak.

2023ko aurrekontua emaitzetara bideratutako aurrekontu baten beharkizunei jarraituz osatu da.

Emaitzetara bideratzean, aurrekontu programek adierazleak helburuekin lotzen dituzte, eta azken horiek ekintzakin eta baliabideekin. Horrenbestez, politika publikoen multzo osoa gauzatzeko oinarrizko tresna izateaz gain, aurrekontuak plangintza eta ebaluazio sistema ere badira, aurrekontuko baliabideak lortzea espero diren emaitzakin lotzen baititu, betiere efikazia, efizientzia eta gardentasuna hobetze aldera.

Ikuspuntu horrek aukera ematen du zeharkako politikak elkarrekin uztartzeko (genero berdintasuna, hizkuntza berdintasuna eta partaidetza), eta programek politika horien garapenean duten eragina adierazten du.

Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuari jarrainena eman zaio, zenbait berritasunekin. Horien helburua da iritzi publikoari protagonismo eta pisu handiagoa ematea erabakiak hartzeari dagokionez, eta herritarren partaidetza errazten duten mugariak zabaltzea, prozesua diseinatzen denetik ebaluazioaren azken faseraino.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokor hauen helburua baliabide publikoen kudeaketa finantzario egokia lortzea da, gastu publikoaren banaketan ahalik eta efizientziarik handiena ziurtatze aldera.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, aurrekontu osoa % 10,13 hazi da, aurrekontu propioa % 8,41 hazi

En este ámbito, en 2023 cobran especial relevancia los proyectos estratégicos lanzados en el marco de Etorkizuna Eraikiz, llamados a erigirse como los pilares de la economía guipuzcoana del futuro. Así, proyectos como Adinberri, Naturklima o Mubil entrarán en el citado ejercicio en una fase decisiva de consolidación y puesta en marcha de sus principales infraestructuras, lo que contribuirá de forma decisiva al refuerzo de la economía del territorio.

Junto a todo ello, Gipuzkoa seguirá apostando por un desarrollo económico y social sostenible, respetuoso con el medioambiente y basado en unas energías cada vez más limpias. Con el mundo en situación de emergencia climática, la Diputación aspira también a que el territorio gane referencialidad en este ámbito.

El presupuesto 2023 se ha elaborado con los requerimientos de un presupuesto orientado a resultados.

En esta orientación a resultados, los programas presupuestarios asignan indicadores a los objetivos y relacionan éstos con las acciones y los recursos necesarios para su logro. Así, los presupuestos, además de ser la herramienta básica de ejecución del conjunto de políticas públicas, pasan a ser también un sistema de planificación y evaluación al relacionar los recursos presupuestarios con los resultados que se esperan obtener, permitiendo una mejora en la eficacia, en la eficiencia y en la transparencia.

Este enfoque permite la integración de las políticas transversales de igualdad de género, igualdad lingüística y participación, indicando el impacto que los programas tienen en su desarrollo.

Se da continuidad al proceso de Aurrekontu Irekiak 2022-2023 que ha incorporado novedades. Novedades que tienen por objetivo dotar de mayor protagonismo y peso a la opinión pública en lo que respecta a la toma de decisiones, ampliando los hitos en los que se facilita la participación de la ciudadanía desde el diseño del proceso hasta la última fase de su evaluación.

Estos presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa persisten en el objetivo de conseguir una buena gestión financiera de los recursos públicos, asegurando una máxima eficiencia en la distribución del gasto público.

Respecto al ejercicio anterior, el presupuesto crece un 10,13 %, el presupuesto propio crece



da eta Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa, aldiz, %7,23 handitu da termino homogeneoetan.

Gastu politikei dagokienez, gizarte gastuetara eta errepide bidezko bidaiaien garraiora bideratutako kredituak zabalgarritzat hartu dira, kontuan izanik gerta daitekeela haien zuzkidura nahikoa ez izatea ekitaldian zehar agertzen diren beharrei aurre egiteko, betiere azpimarratuz borondate politikoa dela kreditu horiek zuzkitzea aurrekontu beharrak estali arte.

Izaera hori dute, halaber, eraldaketa- eta erresilientzia-planekin eta proiektu estrategikoekin lotutako ordainketa kredituak, ekitaldian zehar sortzen direnak egungo egoera ekonomikoak sortutako beharrak asetzeko, proiektu estrategikoen exekuzioetarako sortutakoek eta erresidentzien eredu berrien garapenera lotutako inbertsioetarako eratutakoek.

Lurraldearen ongizatea garatzeko udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean beharrezko den lankidetza kontuan hartuta, aurrekontu hauek 47,44 milioi euroko dirulaguntzak aurreikusten dituzte lurraldoko toki entitateen alde.

Aurrekontuen foru arauaren funsezko edukia I. tituluán jasotzen da, bertan onartzen baitira foru sektore publikoaren sarrera eta gastuen egoera guztiak, eta bertan finkatzen baita, orobat, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tributuei dagozkien gastu fiskalen zenbatekoa.

Titulu horren barruan Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrekontuko sarrera eta gastuen egoera orrien zenbatekoa sartzen da, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako partzuergoena ere.

II. tituluak ezartzen du zein den Foru Aldundiaren zorpetze muga eta zenbaterainoko bermeak eman ditzakeen, eta Bidegi, SA merkataritzako foru sozietatearen zorpetze muga ere jasotzen da bertan.

III. tituluán jasota daude 2023ko ekitaldian zehar aurrekontu kredituen araubide orokorrak eta haien aldaketenak izango dituzten berezitasunak. Zehazki, hauek: araubide orokorren salbuespenak kredituen izaera mugatzaileari dagokionez; kreditu zabalkorren konsiderazioa; konpromiso kredituak sortu eta banatzeko gehieneko muga; kreditu gaikuntzen eta txertaketen berezitasunak.

un 8,41 % y el Fondo Foral de Financiación Municipal, en términos homogéneos, se incrementa en un 7,23 %.

Con relación a las políticas de gasto, han sido calificados como ampliables aquellos créditos destinados a gasto social y de transporte de viajeros por carretera, y en previsión de que la dotación pueda resultar insuficiente para cubrir las necesidades a lo largo del ejercicio, expresando la voluntad política de dotar dichos créditos hasta cubrir las necesidades presupuestarias.

También tienen esta consideración, los créditos de pago vinculados a los planes de recuperación, transformación y resiliencia y a los proyectos estratégicos; los créditos adicionales que se creen a lo largo del ejercicio con destino a cubrir necesidades surgidas de la actual coyuntura económica, la ejecución de proyectos estratégicos y para las inversiones vinculadas al desarrollo del nuevo modelo de residencias.

Atendiendo a la necesaria colaboración entre los ayuntamientos y la Diputación Foral de Gipuzkoa para el desarrollo del bienestar de este territorio, estos presupuestos contemplan subvenciones a los entes locales del territorio por una cuantía de 47,44 millones de euros.

El contenido esencial de la norma foral de presupuestos se recoge en el título I, donde se aprueban la totalidad de los estados de ingresos y gastos del sector público foral y se consigna el importe de los gastos fiscales que afectan a los tributos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se incluye en este título el importe de los estados de gastos e ingresos de los presupuestos de las Juntas Generales de Gipuzkoa, así como de los consorcios adscritos a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El título II establece el límite de endeudamiento y de prestación de garantías de la Diputación Foral y el límite de endeudamiento de la sociedad mercantil foral Bidegi, SA.

En el título III se regulan las especificidades a aplicar durante el ejercicio 2023 al régimen general de los créditos presupuestarios y de sus modificaciones. En concreto, las excepciones al régimen general del carácter limitativo de los créditos, la consideración de créditos ampliables, el límite máximo de creación y redistribución de créditos de compromiso, las especificidades de las habilitaciones e incorporaciones de crédito.



IV. tituluan aurrekontu kudeaketaren inguruko hainbat arau jasotzen dira (dirulaguntzenak, proiektu kofinantzatuenak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren berreskuratze-, eraldaketa- eta erresilientzia-planekin eta proiektu estrategikoekin lotutako funtsen kudeaketa, gastuaren exekuzioa mugatzekoak, eta egindako gastuaren udalerrikako banaketari buruzkoak), bai eta Batzar Nagusiei eta foru sektore publikoko gainerako entitateei transferentziak egiteko araubidea ere.

V. tituluak bi kapitulu ditu. Lehenengoan jorratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko eta foru organismo autonomoetako langileen eta pasiboen kredituei aplikatzen zaien araubidea, aurrekontu plantillaren osaera zehazten da, eta zehaztasun handiagoz arautzen dira aurrekontuetako lehen kapituluari ezartzen zaizkion mugak.

Bigarren kapituluan, berriz, foru sektore publikoko gainerako entitateen plantillaren osaera eta langileria gastuak gehitzeko muga arautzen dira.

VI. tituluan, lurralte historikoko udalen finantzaketa ezartzen da.

VII. tituluan arautzen da Foru Aldundiak aldiante Batzar Nagusietara bidali behar duen informazioa.

Foru arauaren edukia osatzeko, hainbat xedapen ematen dira: gehigarriak, iragankorrap, eta amaierakoak. Horietan askotariko aginduak jasotzen dira.

Xedapen gehigarri gisa gehitu dira honako hauei buruzko aurreikuspenak: berandutze-interesa, tasen, katastro-balioen eta hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren eguneratzea, toki-korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehaztea, kreditu gehigarriak eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU erakundeari maileguak emateko baimena.

17. artikuluan aipatzen diren berreskuratze-, eraldaketa- eta erresilientzia-planei lotutako funtsen kudeaketarako hitzarmenen izapideak simplifikatzeari buruzko xedapen gehigarriari eusten zaio.

Halaber, Gipuzkoako Lurralte Historikoan AP-1 eta AP-8 autobideak eta A-636 autopista erabiltzeko kanonari buruzko xedapen gehigarria

El título IV recoge aquellas normas relativas a la gestión presupuestaria en materia de subvenciones, proyectos cofinanciados, gestión de los fondos vinculados a los planes de recuperación, transformación y resiliencia y a los proyectos estratégicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, limitación a la ejecución del gasto, municipalización del gasto realizado, así como al régimen de transferencias a las Juntas Generales y al resto de entidades del sector público foral.

El título V se desglosa en dos capítulos. El primero, está dedicado al régimen de los créditos de personal y de pasivos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de los organismos autónomos forales, concreta la composición de la plantilla presupuestaria y regula de forma más precisa las limitaciones al capítulo primero de los presupuestos.

El segundo capítulo regula la composición de la plantilla y las limitaciones al aumento de gastos de personal del resto de las entidades del sector público foral.

El título VI establece la financiación de los municipios del territorio histórico.

El título VII regula la información periódica que debe remitir la Diputación Foral a las Juntas Generales.

El contenido de la norma foral se completa con diversas disposiciones adicionales, transitorias y finales, en las que se recogen preceptos de índole muy variada.

Se incorporan como disposiciones adicionales las relativas a la actualización del interés de demora, de las tasas, de los valores catastrales y del impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana; a la determinación de los límites máximos de las retribuciones de las y los miembros de las corporaciones locales, a los créditos adicionales y a la autorización de operaciones financieras vinculadas a los préstamos de la entidad Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU.

Se mantiene la disposición adicional que aborda la simplificación en la tramitación de los convenios para la gestión de los fondos vinculados a los planes de recuperación, transformación y resiliencia a que se refiere el artículo 17.

Se incluye también la disposición adicional relativa al canon de utilización de las autopistas AP-1, AP-8 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa



sartu da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SAren artean sinatutako hitzarmen orokorrerako eta hitzarmen espezifikoetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan baimenduta dagoenaren arabera, iraupen-ape bat ezartzen da, dagokion hitzarmenaren plan ekonomiko-finantzarioa guztiz betetzeari lotua, eta gehieneko indarraldia 20 urtekoa izango da, formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

Xedapen iragankorretan, berriz, arau osagarri batzuk arautzen dira aurrekontuen kudeaketari buruz. Izen ere, aurreko ekitaldietako aurreikuspenari eusten zaio, alegia, egoera jakin batzuetan aurrekontuaren egokitzapen teknikoak egiteko aukerari eta Ogasun eta Finantza Departamentuak kontabilitate saldoak arazteko aukerari.

Azken xedapenekin amaitzen da. Lehenengoaren eta bigarrenaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua aldatzen da, eta PFEZeko kuota gehigarriaren murrizketa sartzen da, prezioen igoeraren ondorioak arintzeko. Hirugarren azken xedapenak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aldatzen du.

Hiru azken xedapen sartu dira, hauek aldatzen dira: 5/2021 Foru Araua, abenduaren 3koa, Gipuzkoako A-15 eta N-I errepideetan salgaien garraioan aritzen diren ibilgailu astunek errepidea erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanona ezartzen duena; 4/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duena; eta 4/2010, Foru Dekretu-Araua, ekainaren 15ekoa, AP-1 eta AP-8 autobideak Gipuzkoako zatian erabiltzeko kanonak ezartzeko. Aldaketaren helburua da kanonaren zenbatekoaren aldaketa sartzea, EURO emisio motaren arabera, salgaia garraiatzeko ibilgailu astunentzat, bat etorriz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko ekainaren 17ko 1999/62/EE Zuzentara uaren 7 octies artikuluko 2. puntuaren ezarritakoarekin. Zuzentara hori berriki aldatu du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022ko otsailaren 24ko 2022/362/EB Zuzentara uak, ibilgailuei bide-azpiegiturak erabiltzeagatik kargak aplikatzeari buruzkoak.

y autovía A-636. Se establece para el convenio general y los convenios específicos suscritos entre la Diputación foral de Gipuzkoa y "Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, S.A." de acuerdo con lo permitido en el artículo 49 de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, un plazo de duración vinculado al total cumplimiento del plan económico financiero del convenio correspondiente, con una vigencia máxima que no podrá exceder de 20 años desde su formalización.

En las disposiciones transitorias se regulan una serie de normas complementarias en relación con la gestión presupuestaria: se mantiene la previsión de ejercicios anteriores de que en determinadas circunstancias se puedan realizar adaptaciones técnicas del presupuesto y de que por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas se puedan realizar depuraciones de saldos contables.

Finaliza con las disposiciones finales. Mediante la primera y segunda se modifican la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa y se incluye la minoración de cuota adicional en el IRPF para paliar los efectos derivados del alza de precios. La tercera disposición final modifica la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se incluyen tres disposiciones finales por las que se modifican la Norma Foral 5/2021, de 3 de diciembre, de implantación de un canon por uso para los vehículos pesados de transporte de mercancías en las carreteras A-15 y N-I en Gipuzkoa, la Norma Foral 4/2020, de 6 de noviembre, por la que se regula el canon de utilización de determinado tramos entre Beasain-Bergara de la autovía A-636 y el Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, por el que se fijan las cuantías del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a fin de incorporar la variación de la cuantía del canon en función de la clase por emisiones EURO para los vehículos pesados de transporte de mercancías, en línea con lo establecido en el artículo 7 octies, punto 2 de la Directiva 1999/62/CE del Parlamento Europeo y del Consejo de 17 de junio de 1999, modificada recientemente por la Directiva (UE) 2022/362 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 24 de febrero de 2022, relativa a la aplicación de gravámenes a los vehículos por la utilización de infraestructuras viarias.



Era berean, xedapen horietan aipatutako foro arauak aldatzen dira helburu hauekin: ibilgailu arinak erabiltzen dituzten pertsona fisikoei AP-8, AP-1 eta A-636 errepideetako Gipuzkoako tarteetan ohiko erabilera-gatiko deskontuak eta hileko gastu-muga aplikatzeko, betiere inolako jarduera profesional, enpresarial edo ekonomikori lotuta ez badaude; ibilgailu arinei (jarduera profesionalari, enpresarialari edo ekonomikoari lotutakoak) eta ibilgailu astunei ohiko erabilera-gatiko deskontua ezartzeko; eta autobus eta autokarretarako ibilgailu astunei dagokien kanonaren gainean % 50eko murizketa ezartzeko, garraio kolektiboaren erabilera sustatzeko neurri gisa, ingurumen-iraunkortasuna hobetzeko.

Azkeneko hirurak erregelamenduzko garapenari, aplikazio eremuari eta foro araua bera indarrean jartzeari buruzkoak dira.

Asimismo, en dichas disposiciones se modifican las citadas normas forales para: aplicar a las personas físicas usuarias de vehículos ligeros no afectos a actividad profesional, empresarial o económica alguna, descuentos por uso frecuente y límite mensual de gasto en los tramos guipuzcoanos de las carreteras AP-8, AP-1 y A-636; establecer un descuento por uso frecuente a los vehículos ligeros afectos a actividad profesional, empresarial o económica y a los vehículos pesados; y establecer una reducción del 50% sobre el canon correspondiente a los vehículos pesados para autobuses y autocares, como medida para fomentar el uso de los modos de transporte colectivo, en busca de mejorar la sostenibilidad ambiental.

Las tres últimas se dedican al desarrollo reglamentario, al ámbito de aplicación y a la entrada en vigor de la propia norma foral.